**Vicecerrectorado de Innovación Docente**

**Ikasketa Berrikuntzako Errektoreordetza**

**Edorta Arana irakaslearen protokoloa**

2006ko ekaina

## 1/ IRAKASGAIAREN DATUAK:

**IKASTEGIA:** Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.

**TITULAZIOA :** Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea.

**IZENA:** Programazio estrategiak irrati-telebistan
**KODEA:** 13074

**GRADUA/GRADUONDOA:** GRADUA

**MAILA: 3-**4. maila **KODEA :** COMUN202 y PUBLI2002

**MOTA :** HAUTAZKOA

**GAURKO TITULAZIOAREN KREDITU KOPURUA:** 6 KREDITU

**ECTS-KO ARAUEN ARABERAKO KREDITU KOPURUA :** 6 KREDITU

**HIZKUNTZA:** Euskara

**IKASTURTE AKADEMIKOA:** 2006/2007

## 2/ IRAKASLEAREN DATUAK

**IZENA ETA ABIZENAK:** Edorta Arana Arrieta
**NAN:** 15358961K

**IRAKASGAIA EMATEN DEN IKASTEGIA :** Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultate.

**SAILA:** Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea.

**TELEFONOA:** 94 601 5246

**E-MAIL:** edorta.arana@ehu.es

**WEB-ORRIA:**

# 3/ GAITASUNAK:

## 3-3 /Irakasgaiaren konpetentzia espezifikoak

**1. Emisio-sistema, jabetza eta kudeaketa desberdina duten irrati-telebistetatik egiten diren programazioen, generoen eta eduki eskaintzen bilakaera aztertu.**

**2. Gizartean aurki daitezkeen irrati-telebista kontsumo portaerak sailkatu eta horietan eragina duten faktore sozio-demografikoak, teknologikoak eta ohiturazkoak identifikatu.**

**3. Irrati-telebistaren audientzia-ikerkuntzan aplikatzen diren teknikak, ikerketa ezagunenak eta haien emaitzetan sakondu.**

**4. Programaziogintzaren definizioa, oinarriak, faktore eragileak eta zeregin horretara dedikatzen diren profesionalen lanaren oinarriak aztertu.**

## 4.- GAI-ZERRENDA

Lau zati nagusi ditu irakasgai honek. Lehen bietan, egitura berbera erabiliz, bi hedabide oso desberdinak aztertzen dira: irratia eta telebista. Hirugarrenean, audientzia ikerkuntzan sakontzen da. Eta, azkenik, laugarren zatian, programatzera dedikatzen diren sailen eta bere baitako profesionalen lanbidean miatzen da.

Irrati-telebistaren eguneroko eskaintza eta kontsumoaren arteko jokotik harantzago joanez, hedabide hauengan eragiten duten epe luzeko indarretan sakontzen da.

**I. zatia: telebistagintzaren panorama, eskaintza, kontsumoa eta programaziogintza**

Emisio-eremu eta -sistema desberdinak diztuten telebisten egungo egoera eta azken urteotako bilakaera aztertzen da, beraien bidez pantailaratzen diren edukiak eta jendearengan sortzen duten kontsumo patroia aztertuz. Gainera, programa eta generoen definizioa eta elementu osagarrietan sakonduz gain, programazio-taulen eraiketa nola egiten duten ikusten da.

**II. zatia: irratigintzaren panorama, eskaintza, kontsumoa eta programaziogintza**

Irratigintzaren panorama orokorrean emisora desberdinak eta eduki berezituak zabaltzeko ageri diren programazio-estrategiak eta taktikak azaltzen dira. Bestalde, irratiaren kontsumoan eman den bilakaera aztertzen da. Azkenik, eskaintza eta kontsumoaren arteko erlazioa nolakoa den lantzen da, azpikapitulu batean.

**III. zatia: audientzia-ikerkuntza**

Irrati-telebistaren audientzia ezagutzeko erabiltzen diren teknika kualitatiboetan eta kuantitatiboetan sakontzen da. Zeregin horretara dedikatzen diren erakunde, entrepresa eta ikerketa nagusienak aztertuko dira, bereziki audimetria. Gainera, ikerketa horien emaitzak nola interpretatu, aztertu eta ondorioak atera daitezkeen ikasiko da. Audientzia-ikerkuntzan gehien erabiltzen diren kontzeptu eta indizeak definituko dira.

**IV. zatia: programaziogintzaren esangurak eta faktore eragileak**

Programaziogintzaren definizioa eta azken urteotan izan duren bilakaera analizatuko da. Programatzerakoan kontuan hartu behar diren faktoreen garrantzi-zerrenda egingo da. Azkenik, programazio-saila eta bere baitan lanean ari diren profesionalen lanaren oinarrietan sakonduko da.

## 5.- METODOLOGIA.

IKd: Ikasleak lanean ematen duen denbora (Orduak) ./IRd: Irakasleak ematen duen denbora ikaslearen zereginak atenditzeko
B:Bertaratzekoa; ERB: Erdi-bertaratzekoa; EZP: Ez-bertaratzekoa

| **Gaitasun espezifikoaren zenbakia** | **Zeregin mota** | **B/ERB/EPB** | **IKd** | **IRd** | **Gela mota/ baliabide materialak** | **Talde mota** | **Barkako**/ taldeko lana |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **1. Irratiaren panorama aztertu eta eduki-eskaintza eta programazio-taula desberdinak nola osatzen diren analizatu.**<br>Emisio-eremu eta -sistema desberdineko irratiak zerrendatu.<br>Programazio-taulen oinarriak eta osakera nola egiten den aztertu.<br>Emisora baten programazio-taula berreraiki. | ERB | 20 | 10 | 1.Ikasgela arrunta<br>2. Ordenagailu gela interneteko loturarekin<br>3. Liburutegia | Ikasle-talde erdiak irratia hartuko du. Besteak telebista. | Bakarkako hasieran eta gero Taldeko lana |
| 1 | **2. Telebistaren panorama aztertu eta eduki-eskaintza eta programazio-taula desberdinak nola osatzen diren analizatu.**<br>Emisio-eremu eta -sistema desberdineko telebistak zerrendatu.<br>Programazio-taulen oinarriak eta osakera nola egiten den aztertu.<br>Kanal baten programazio-taula berreraiki. | ERB | 20 | 10 | 1.Ikasgela arrunta<br>2. Ordenagailu gela interneteko loturarekin<br>3. Liburutegia | Ikasle-talde erdiak telebista hartuko du. Besteak irratia. | Bakarkako hasieran eta gero Taldeko lana |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **3. Irratian eta telebistan presente dagoen genero baten definizioa egin eta bere pisua aztertu** | ER B | 10 | 10 | 1.Ikasgela arrunta<br>2. Liburutegia | Talde oso | Bakarkakoa hasieran eta gero Taldeko lana |
| 2 | **4. Irrati-telebistaren kontsumoaren bilakaera eta ikus-entzuleen perfila aztertu**<br>Azken hamarkadan irratia eta telebista ikus-entzuteko ohituran gertatu den bilakaera ikusi eta gero, bere gorabeheretan sakondu. Ikus-entzulearen perfila definitu | B | 10 | 10 | 1.Ikasgela arrunta<br>2. Ordenagailu gela interneteko loturarekin | Talde osoa | Taldeko lana |
| 3 | **5. Ikerkuntza kualitatibora ala kuantitatibora dedikatzen diren entrepresa/erakunde desberdinak aztertu. Ikerketa lan garrantzitsuenen oinarrietan sakondu, eta bereziki audimetrian.**<br>*Ad hoc* eginiko ikerketetan baino, jarraikortasun handiagoa duten CESPen, AIMCren eta CIESen lanaren oinarriak eta berezitasunak aztertu. Audimetria erabiltzen duten TNS eta Mèdiamètrie-ren bilakaeran sakondu. | ER B | 15 | 15 | 1.Ikasgela arrunta<br>2. Ordenagailu gela interneteko loturarekin<br>3. Liburutegia edo ikaslearen etxea | Ikasgela bi zatitan banatuz | Taldeko lana |

| **Gaitasun espezifiko-aren zenbakia** | **Zeregin mota** | **B/ERB/EPB** | **IKd** | **IRd** | **Gela mota/ baliabide materialak** | **Talde mota** | Barkako/ taldeko lana |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | **6. Audientzia-ikerkuntzaren emaitzak modu praktikoan aztertu eta kontzeptuak eta indizeak egokiro erabili.**<br>AIMCren, CIESen eta TNSren emaitzak irakurri eta ondorioak atera. Audientzia- | ER B | 20 | 20 | 1.Ikasgela arrunta<br>2. Ordenagailu gela interneteko loturarekin<br>3. Liburutegia edo ikaslearen etxea | | Bakarkako lana |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ikerkuntzan nagusi dire kontzeptu eta indize desberdinak praktikoki landu. | | | | | | |
| 4 | **7. Programaziogintzan eragiten duten faktoreak aztertu.** | B | 20 | 10 | 1.Ikasgela arrunta<br>2. Liburutegia edo ikaslearen etxea | Talde oso txikia | Bakarkako eta Taldeko lana |
| 4 | **8. Programazioari buruzko aldizkarien errolda gaurkotu.** | EZ B | 20 | 10 | 1. Ordenagailu gela interneteko loturarekin<br>2. Liburutegia | Talde oso txikia | Bakarkako eta Taldeko lana |

## 6/ EBALUAZIOA

| Gaitasun espezikikoaren zkia. | Zereginaren zkia. | Ebaluazioa tresna | Ebaluazio erizpidea | Azken notaren portzentajea |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 1 | Lan idatzia eta azalpena ikasgelan | Emisio-eremu eta -sistema desberdineko irratien zerrenda osatua burutzea.<br>Programazio-taula berreraikitzea eta bere oinarrietan dauden elementuak ondo identifikatzea: ordutegia, generoak eta kontsumo-ohiturak. | 10 |
| 1 | 2 | Lan idatzia eta azalpena ikasgelan | Emisio-eremu eta -sistema desberdineko telebisten zerrenda osatua burutzea.<br>Programazio-taula berreraikitzea eta bere oinarrietan dauden elementuak ondo identifikatzea: ordutegia, generoak eta kontsumo-ohiturak. | 10 |
| 1 | 3 | Lan idatzia eta azalpena ikasgelan | Generoen definizioa eta generoen arteko bereizketak eta antzekotasunak identifikatzen jakitea.<br>Informazio-iturri desberdinak ezagutzea eta ondo erabiltzea.<br>Genero-sailkapen ugarietatik egokiena aukeratzen jakitea. | 15 |
| 2 | 4 | Lan idatzia eta azalpena ikasgelan | Gaur egungo irrati-telebistaren kontsumitzailearen perfila eraikitzen jakitea. Bi hedabideen arteko osagarritasuna nola sortzen den azpimarratzen jakitea. | 10 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 3 | 5 | Lan idatzia eta azalpena ikasgelan | Aztergairako aukeratutako ikerketa lanaren berezitasunak azpimarratzea. Beste ikerketekin konparagarri dituen elementuak identifikatzea. | 10 |
| 3 | 6 | Lan idatzia eta azalpena ikasgelan | Audientzia-ikerkuntzaren emaitzak modu praktikoan aztertzea eta kontzeptuak eta indizeak egokiro erabiltzea.<br>Kasu praktikoan aplikatzaen jakitea | 20 |
| 4 | 7 | Lan idatzia eta azalpena ikasgelan | Programaziogintzan eragiten duten faktoreak ezagutzea eta beraien artean garrantzi-rankinga eraikitzea. . | 10 |
| 4 | 8 | Lan idatzia eta azalpena ikasgelan | Aldizkari bakoitzaren fitxa egokiro betetzea eta bereziki, programaziogintzarekin zerikusia duten elementuak azpimarratzen jakitea. | 15 |

# 7/ BIBLIOGRAFIA.

**7-1: OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA**
**7-2: SAKONTZEKO BIBLIOGRAFIA**
**7-3: WEB-GUNE INTERESGARRIAK**
**7-4/ IRAKASGAIAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ALDIZKARIAK**

## 7-1: OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

| Liburuak | Dokumentu elektronikoa |
| --- | --- |
| - ARANA, Edorta (2004), *Programaziogintza irrati-telebistan*, UEU, Bilbo. | |

## 7-2: SAKONTZEKO BIBLIOGRAFIA

### 7-3 /WEB-GUNE INTERESGARRIAK

- AIMC (Asociación para la Investigación de Medios de Comunicación) <http://www.aimc.es>
- CIES (Instituto de Estudios de Opinión, de Mercado y Socioeconómicos) <http://www.ciessl.com>
- CIS (Centro de Investigaciones Sociológicas) <http://www.cis.es>
- Consejo Audiovisual de Navarra <http://www.consejoaudiovisualdenavarra.es>
- Consell de l'Audiovisual de Catalunya <http://www.audiovisualcat.net>
- CSA (Conseil Supérieur de l' Audiovisuel) <http://www.csa.fr>
- DDM (Direction du Développement des Médias) <http://www.ddm.gouv.fr>
- EAO (European Audiovisual Observatory / Observatorio Europeo del Audiovisual / Observatoire Européen de l'Audiovisuel) <http://www.obs.coe.int> eta <www.obs.coe.int/about/oea/pr/mipcom2004pdf.pdf.en >
- EBU-UER (European Broadcasting Union / Unión Europea de Radiodifusión / Union Européenne de Radio-Télévision) <http://www.ebu.ch>
- EITB (Euskal Irrati-Telebista) <http://www.eitb.com>
- Emer-GfK <http://www.emer-gfk.com>
- ESOMAR (European Society for Opinion and Marketing Research) <http://www.esomar.org>
- ESS (European Social Survey) <http://www.europeansocialsurvey.org>
- Eurodata TV <http://www.mediametrie.fr/eurodatatv eta

## 7-4/ IRAKASGAIAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ALDIZKARIAK

| Aldizkariak | Dokumentu elektronikoak |
|---|---|
| | |

## 8.- ERANSKINAK